

# Gazteen lonjen fenomenoa. Bermeon eginiko kasu-azterketa

Yaiza Fariñas Garzia\*, Monike Gezuraga

Susterra elkarte\*, Irakasle eta ikertzailea-Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Lan hau Bermeoko udalerrian egindako gazteen lokalei buruzko kasu-azterketan oinarritzen da. 15-30 urte bitarteko gazteen lokaletan egiten ari diren praktika sozio-hezitzaileak zein gazte horien hazkundera ezagutzea izan da helburu nagusia. Azterketa hau 2015. urtean garatu zen, otsailetik urrira doazen hilabeteetan. Prozesuan zehar, informazioa eskuratzeko zenbait teknika erabili dira: analisi dokumentala, elkarrizketak eta talde komunikatiboa, hain zuzen ere. Horiek Bermeoko gazteen lokaletan inplikaturik dauden eragileen ahotsak jasotzea ahalbidetu dute. Azterketa honek alderdi teoriko batzuk zehaztera eraman gaitu, gazteen sozializaziotik jendarte-hezitzailearen garrantzira eta lokalen eremuan izan dezaketen betekizunera zabaltzen direnak. Bermeon egindako kasu-azterketa aurkeztu ostean, lortu ditugun emaitzak plazaratuko ditugu eta, azkenik, ondorioztatutako ideia nagusiak jasoko dira.

GAKO-HITZAK: Gazteak · Sozializazioa · Gazteen lokalak · Esku-hartze hezitzailea

## The youngsters' gathering spaces phenomenon. A case study developed in Bermeo

This paper focuses on the case study around self-organized youth spaces carried out in the town of Bermeo; the main objective of this work is to acknowledge both socio-educational practices and the development of young people aged between 15 and 30 years old. This research was conducted in 2015, specifically from February till October. During the process, we have used various techniques for gathering information, including the analysis of the collected documentation; interviews and communicative groups, which have provided the opportunity to collect the voices of the agents involved in the Bermeo self-organized youth spaces. This research has led us to establish certain theoretical bases that depart from the youth socialization and the importance of the educating society up to the task of these in the area of these spaces. Through presenting the case study conducted in Bermeo we will demonstrate the acquired results, finally enabling us to draw the main conclusions obtained.

KEY WORDS: Youngsters · Socialization · Youth locals · Educational intervention.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.104.2018.3>

*Jasotze data:* 2017-06-28

*Onartze data:* 2017-10-18

## 1. Sarrera

Gure jendartea jatorri, kultura, ohitura eta abar ezberdinak biltzen dituen nukleo bat da, bertan kokatuta egoteak indar sozial zehatz batzuen elkargunean egotea esan nahi duelarik (Berger, 1998). Nukleo horretan dauden pertsona guztiak jendartearen eraldaketa-prozesuaren barne daude, eta horrek dakarren egokitzapena pairatu beharko dute. Egokitzapen-prozesu horrek, aldi berean, gertakari berrien sorkuntza bideratuko du, adibidetzat artikulu honen ardatz har dezakeguna, hau da, lonjen fenomeno.

Gazteen lokal hauen ibilbidea laburra da, eta egoera horrek ezjakintasuna eragiten du jendartearen. Aldi berean, jendartearen gertakari honen inguruan dauden ezagutzak edota heziketa-arloko profesionalak erabil ditzaketen erremintak eskasak dira.

Profesionalek eskura dituzten baliabideak eta haien trebakuntzan izan ditzaketen gabeziei erreparatuta, etorkizunean haien hezkuntza-prozesuetan gai honen inguruko elementuak txertatzea ezinbestekoa izango dela aurreikusten da, bai gaur egun lan-eremu honetan dihardutenentzat, bai etorkizunean heziketa-prozesuetan inplikaturako direnentzat.

Eraldaketa-prozesu honen adibide bat dugu Bizkaiko Foru Aldundiak, Susterrak eta EHUK abiatutako *Las prácticas de éxito en participación y crecimiento juvenil en lonjas de Bizkaia* deritzon ikerkuntza-proiektua, non, EHUKo irakasle zein ikasleen laguntzaz, Bizkaiko gazteen lokaletan egiten ari diren praktika arrakastatsuek zein gazte horien hazkundera ezagutu nahi diren. Helburu horiei erantzuteko, ugariak dira ikerketa-proiektu honetan aztertu diren herrialdeak; horien artean Bermeoko udalerrria dago. Hori horrela, artikulu honetan Bermeoko udalerrian izandako esperientzia partekatzeaz arduratuko gara, prozesuan zehar bildutako datuak, emaitzak, ondorioak eta abar partekatu eta, aldi berean, horiek ulertzeko eta hasi berri den gazteen lonjen fenomeno hau ezagutzeko beharrezkoak diren oinarri teorikoak azalduko ditugu.

## 2. Gazteen lonjen fenomeno. Sozializazio-esparru berria

Jendartea eraldatuz joan da, horrekin batera jendartea osatzen dugun pertsonon beharrak, gabeziak eta bizimoduak ere aldatuz joan direlarik. Eraldaketa horien artean, gazteen inguruan gertatu direnak bereiz ditzakegu, itxura fisikotik sozializaziorako agertu diren esparru berrietara zabaltzen direnak. Baina, badakigu zer den sozializazioa? Badakigu zer-nolako esparru berriak agertzen hasi diren?

Gizarteratzeak jendartearen parte izateko jarraitzen dugun prozesuari egiten dio erreferentzia, garapen-prozesu bat, non testuinguru propioaren kultura, arauak eta aurreikuspenak barneratzen joaten den (Goode, 1983). Calderón Astorgaren arabera (d.g.), gizaki batek, jendartera egokitzeko, testuinguruaren elementu soziokulturalak hartu eta bere nortasunean integratzen ditu; sozializazioaren bitartez, umeak, adibidez, bere jokoeran egokia eta desegokia dena bereizten ikasten du.

Beraz, esan dezakegu sozializazioa bizitza osoan zehar emango den prozesu jarraitu bat dela, momentu gorena gaztaroan duena, non norberaren identitatearen garapena eta jendarte-egokitzapena agertuko diren.

Badakigu, beraz, zer den gizarteratzea; baina, ohartu behar dugu jendartea eraldatuz joan dela (Furlong eta Cartmel, 2007; Martínez, 2003) eta, horrekin batera gazteen munduan sozializazio-bide berriak agertu direla, besteak beste, gure testuinguruan, Euskal Herrian, nabarmentzen hasi den gazteen lonjen fenomenoak.

Fenomeno hori ulertzeko, lehenik eta behin, garrantzitsua da haren jatorria ezagutzeko, hau da, lokalen fenomenoak nagusitzearen arrazoiak ezagutzeko. Corcuera, Bilbao eta Longok (2013) azaltzen diguten moduan, fenomeno honen hasiera 90eko hamarkadaren erdialdean koka dezakegu, aisialdira lotutako fenomeno gisa. Aldi berean, lonjek, norberaren espazioa edukitzeko aukera eskaintzeaz gain, ardurak hartzeko eta beste pertsona batzuekin antolatzeko aukera eskaintzen dute, berezko toki bat izateko beharretik abiatuta (Doistua, Pose eta Ahedo, 2016).

Beste alde batetik, lonjen fenomenoari buruz hitz egiterakoan, «lokalero» en profila zein den zehaztea ezinbestekoa da, egoera honetan kokatzeko eta informazio gehiago eskuratzeko aukera eskainiko baitugu. Lonjen erabiltzaileak gehiengo batean mutilak eta 25 urtetik beherakoak dira, nahiz eta ikerketa batzuetan lokal bat izatearen grina oso gazteak direnean ere agertu. Gurasoekin bizi diren ikasleak dira, oro har, eta zenbat eta adin nagusiagokoak izan, orduan eta handiagoa da haien parte-hartzea lokaletan. Lokaletako kide kopurua 15etik gorakoa izaten da eta, normalean, aurretik beste lokal batekoak izan diren gazteak izaten dira (Laespada, Arostegi, Martínez eta Sarabia, 2008).

Hori horrela, Tejerinak, Carbajok eta Martinezek (2012) bildutako datuetatik lokal bat izatearen grina adin txiki batetik agertzen dela ondoriozta dezakegu, errepikatzeko joera bat ezartzen delarik (argi ikusten da, nahiz eta errekurso ekonomikorik ez izan, gazteak lokal batera sartzen direla, eta horrek fenomeno honen garrantzia azpimarratzen duela esan dezakegu).

Informazio hau guztia ezagututa, ikus dezakegu gazteen lokalen fenomenoak sozializazio-bide berri bat dela, non ugariak izango diren eragina izango duten elementuak, esaterako: familia, komunitatea, agente hezitzaileak, lagun taldea, etab. Hori dela-eta, ezinbestekoa da sozializazio-bide berri honetan eragina izango duten agente ezberdinetan gure arreta jartzea.

Komunitatearen begiradan zentratuz, esan dezakegu iritzi ezberdinak agertzen direla. Laespada, Arostegi, Martínez eta Sarabiak (2008) azaltzen diguten moduan, gutxi batzuk izaten dira komunitatearekin/auzokideekin arazoak izaten dituztenak, eta, oro har, arazo horiek zaratan zentratzen dira. Normalean, elkarriketa edota autoritatearen presentziarekin konpontzen dira, eta, ondorioz, erlazio-arazoak sortzen dira.

Gurasoen begiradari dagokionez, Corcuera eta besteek (Corcuera *et al.*, 2013) biltzen dutenaz baliatuz, honako ideia hauek azpimarratu beharko genituzke:

- *Adina*. Normalean gurasoen ardurak adin txikiagoko gazteekin agertzen dira, lokala drogen zein alkoholaren kontsumoarekin erlazionatzen dutelako.
- *Faktore ekonomikoak*. Lokalak duen prezioak ere erabateko eragina du; izan ere, adin txikiagoko gazteen kasuan, gurasoak izaten dira alokairua ordaintzeaz arduratzen direnak (nahiz eta gazteek beren pagatik ordaindu, diru hori gurasoengandik dator).
- *Drogen kontsumoa eta alkohola*. Guraso askoren ustetan, lonjak kontsumorako guneak dira, lasaitasun handiagoz kontsumitzeko aukera eskaintzen baitute.
- *Parte-hartzea*. Oro har, gurasoen parte-hartzea kontratuarekin erlazionatutako alde burokratikora mugatzen da, kasu batzuetan (zehazki, % 26) gurasoak izaten direlako kontratua sinatzeaz arduratzen direnak. Beste kasu batzuetan, gurasoen parte-hartzea lokalaren egokitzapenera bideratzen da.

Beraz, ideia hauek guztiak aztertu ondoren, esan genezake gurasoen funtzioa ez dela parte-hartzean zentratzen, guraso izatearen rolean baizik (kontrola, ardura, etab.).

Horrez gain, administrazioetik egiten ari diren lanean zentratu behar dugu; izan ere, hainbat aldaketa bultzatu izan dira azken urteotan. Alde batetik, udalen eginkizunak azpimarratu beharko genituzke. Corcuera eta besteek (Corcuera *et al.*, 2013) azaltzen diguten moduan, gazteek egoki ikusten dute udalaren parte-hartzea lokaletan hainbat gairen inguruan, besteak beste: bitartekaritza-lanetan, sexu zein drogen kontsumoen inguruko prebentzio-kanpainetan, lokalen arautzean, etab. Baina, errealitatera joz gero udalaren parte-hartzea herrialde batzuetan bakarrik ikus dezakegu, gai horietako asko administrazioetik kanpoko erakundeetatik lantzen direlarik.

Hala ere, EAEko hainbat herrialdeetako udalak esku hartzen hasi dira fenomeno honen hazkundearen aurrean. Adibidez, euskal udal batzuk bi motatako neurriak aurkeztu izan dituzte: alde batetik, Ermuko Udalekoa adibidetzat hartuz, berariazko ordenantzen ezarketa<sup>1</sup>, eta, bestetik, erregistro baten sorrera zein gomendioen ezarpena<sup>2</sup>, esaterako, Bermeoko GIZ<sup>3</sup> zerbitzutik martxan jarri diren prozesuak.

Eta, azkenik, hezitzaileen zereginetan zentratu behar dugu. Nahiz eta esparru nahiko berria izan Gizarte Hezkuntzaren arloan, gero eta elkarte gehiago dira beren lana eremu honetara bideratzen dutenak, gazteen sustapena bultzatzeaz arduratzen direnak. Gazteen eta lonjen fenomenoaren inguruko programak, beraz, gero eta

---

1. Berariazko ordenantza baten adibidea: <<http://www.ermua.es/pags/noticias/archivos/27102005/ordenanzaLocalesJovenes.pdf>>.

2. Gomendioen ezarpenari dagokion adibidea: <[http://www.bermeo.eus/fileadmin/bermeokoudala/doc\\_bermeo/datu\\_orokorrak/GAZTEEN\\_LOKALEN\\_GIDA\\_ERDERAZ\\_20150127.pdf](http://www.bermeo.eus/fileadmin/bermeokoudala/doc_bermeo/datu_orokorrak/GAZTEEN_LOKALEN_GIDA_ERDERAZ_20150127.pdf)>.

3. GIZ (Gazteen Informazio Zerbitzua) sakontasunez ezagutzeko: <<http://gizbermeo.blogspot.com.es/>>.

ugariagoak dira. Horren adibide bat Susterra<sup>4</sup> elkartetik bultzatzen ari den Gazte Zabalik<sup>5</sup> programa da.

### 3. Gizarte-hezitzailearen zereginak: gazteen lonjetan lekurik al dago?

Jendarte-heziketak eta jendarte-hezitzailearen funtzioak eztabaida ugari piztu dituzte azken urteotan, lanbide «gaztea» baita, 20 urte bete berri eta oraindik galdera asko erantzuteke lagatzen dituen (Agirre, 2007). Aldiz, jendarte-heziketaren kontzeptuan eta horko langileen profesionalizazioan aurrerapauso itzelak eman dira (Losada, Muñoz, Espiñeira, 2015), gure gertuko testuinguruan kode deontologiko eta dokumentu profesionalizatzailerik batzuk adostera iritsi garelarik.

Dokumentu horiek jendarte-hezitzaile batek bete beharreko funtzioak agertzen dituzte (ASEDES, 2007). Honakoak dira funtzio nabarmenenak, hain zuzen ere:

- Kulturaren transmisioa, garapena eta sustapena.
- Sare sozialak, testuinguruak, prozesuak eta baliabide sozial eta hezigarrien sorrera.
- Bitartekaritza soziala, kulturala eta hezigarria.
- Testuinguru sozial eta hezigarrien ezagutza, analisia eta ikerketa.
- Programa eta proiektu sozio-hezitzaileen diseinua, ezarpena eta ebaluazioa.
- Erakunde eta baliabide hezigarrien kudeaketa, zuzendaritza, koordinazioa eta antolaketa.

Heltzen doan lanbidea da hau, beste lan-esparruetan gertatzen den moduan, jendarte-eredu berrietara, etengabe gertatzen diren aldaketetara egokitzeko esfortzu handiak egin beharko dituen. Arestian aipatu bezala, lonja batean parte hartzeko grina oso gaztetatik agertzen da, eta hori bakarrik ez, gora doan fenomeno delatzen ematen du (Corcuera, Bilbao eta Longo, 2013; Gonzalez, 2013; Laespada, Arostegi, Martínez eta Sarabia, 2008; Lazcano, Madariaga, Rubio eta Pinillos, 2013; Tejerina, Carbajo eta Martínez, 2012).

Aurreko hamarkadetako gazteek udalerrietako baliabideen erabilera egiten zuten, haiei zuzendutako proiektu zehatzetan parte hartzen zuten, espazio publikoetan ikusten genituen; gaur egun, aldiz, ehuneko handi bat lonjetan dago (Corcuera, Bilbao eta Longo, 2013). Bestalde, sozialki gazteen lokalekiko dagoen iritzia negatiboa da kasu askotan; azken urte hauetan hedabideetan agertu diren berrien analisi bat egiten badugu, ideia hori sustatu egin dela ikusiko dugu (gatazkak komunitatearekin, gertakariak...), hona hemen adibide batzuk:

Goizaldean sutea gertatu da Gasteizko Errementari kaleko eraikin batean. Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak agertu duenez, 02:30 aldera piztu da sua, gazte batzuek erabiltzen duten lonjan. Badaezpada, hiru pisuko eraikineko zortzi bizilagunak aterarazi behar izan dituzte, baina inork ez du minik hartu (...) (*Berria*, 2010/03/24).

4. Elkarte honen inguruan informazio gehiago eskuratzeko: < <http://www.susterra.info/>>.

5. Programa honi buruzko informazio gehiago izateko: <<http://www.susterra.info/index.php/108-noticiasacompanamiento-informacion-formacion-tal>>.

La Policía Local de Mungia ha detenido a un joven de 20 años acusado de traficar con drogas en una lonja utilizada por unos menores como lugar de reunión. Según han informado hoy fuentes de dicho cuerpo, el pasado viernes se produjo la detención de este individuo, un vecino de Mungia con numerosos antecedentes policiales y que se encuentra en situación irregular en el país, a quien también se acusa de haber agredido a los agentes que le arrestaron. Su detención se ha producido gracias a las pesquisas desarrolladas a raíz de las quejas y sospechas de los vecinos en torno a un posible tráfico de drogas en dicha lonja, ubicada en la zona de la calle Iturribarriondo de Mungia (...) (*El Mundo*, 2015/2/22).

La Policía Municipal de Bilbao precintó la pasada semana una lonja juvenil en el barrio de Santutxu y arrestó a cuatro jóvenes, tras comprobar cómo ésta se utilizaba en realidad para el consumo y la venta de sustancias estupefacientes, ha informado hoy este cuerpo. Los policías vieron salir del local a dos hermanos de 7 y 11 años, que tras efectuar una compra de droga se habían introducido en una tienda de golosinas cercana. A los dos niños se les incautó una bolsa de hachís. (...) La lonja, que fue precintada y puesta a disposición judicial, continúa cerrada (*ElCorreo.com*, 2013/5/28).

Hauek eredu bakarrak ez direla esan beharra dago; apurka-apurka, gazteen lokalen beste irudi bat ematen duten ekintzak sortzen ari dira-eta, horien artean EITBko *Lokalerok*<sup>6</sup> programa.

Hezitzaileok testuinguru honetan zereginik al dugu? Arestian aipatutako funtzioetara jotzen badugu, baietz ematen du.

Kasu-azterketa hau garatu zen unean, aurretik eginda zeuden ikerketek fenomeno honen inguruko informazio oso baliagarria jasotzeko aukera eskaini ziguten; izan ere, ikerketa horien bitartez, lokaletako gazteen profilak, lonja izatearen zergatiak, momentura arte aurki zitezkeen lokal motak eta abar ezagutzeko aukera izan genuen. Baina, lokalek eskaintzen dituzten heziketarako aukeretan zentratuz gero, esan dezakegu ikerketa horietan ez zela ematen horrelako informaziorik eta, ematekotan, oso modu xumean azaltzen zen zein izan zitekeen hezitzailearen papera fenomeno honen aurrean edota zer-nolako aukerak egon zitezkeen proiektu sozio-hezitzaile bat aurrera eramateko gazteen lokaletan. Aurrean dugun egoerak zer pentsatu, zer hausnartu ematen du. Aurretik esaten genuen legez, gure gazteak eremu ezberdinetan mugitzen dira gaur egun, haiengana iritsi nahi badugu, gazte-politikak egokitu nahi baldin baditugu, lonjetara jo behar izango dugula ematen du. Ikus dezagun lan honetan agertzen dugun kasu-azterketatik zer ondoriozta daitekeen eta ildo horretan zer ekarpen zehatz egin daitekeen.

#### 4. Bermeoko lonjak. Kasu baten azterketa

Bermeok 16.994 biztanle ditu, 15-30 urte bitarteko gazteen kopurua 2.320koa izanik<sup>7</sup>. Udalaren aldetik gazteei zuzendutako zerbitzuak daude, Gazte Ekimenak sustatzeko Zerbitzutik (GEZ), Gaztelekura edota Gazteen Informazio Zerbitzura

6. <http://www.eitb.eus/eu/gaztea/lokalerok/>

7. Biztanleriarekin loturiko datu estatistiko hauek, 2016ko abenduaren 25ean Bermeoko Udaletik jasotako datuak dira.

(GIZ) zabaltzen direnak (Bermeoko Udala, d.g.). Azken zerbitzu horretatik, gazteen lokalen hazkundera ikusita, *Lokaleku* deituriko proiektua jarri dute abian.

*Lokaleku* Bermeoko Udalak egindako eskaera batean oinarritzen da, lonjen fenomenoaren hazkundera dela-eta, horri erantzuteko eta fenomeno horrekin lan egiteko beharra antzeman baitzen. Urtxintxa Eskolako teknikarien laguntzaz eta horiek egindako lanaren bitartez, protokolo bat sortu da Bermeon, zeinean, prozesu parte-hartzaile baten bidez, komunitateko hainbat eragilek inplikatze aukera izan duten; aldi berean, sortutako beharrak ezagutzeko eta, moduren batean, behar horiei erantzuteko aukera egon da. Horrela, prozesu parte-hartzaile horren bidez, *Lokaleku. Amaierako txostena* zein *Bermeoko gazte lokalen elkarbizitzarako gida* dokumentuak sortu dira, lokalen fenomenoaren ezagutzera ematera eta lokalen eta komunitatearen arteko elkarbizitza zein harremanak hobetzera zuzentzen diren baliabideak.

*Lokaleku* proiektutik abiatuta eta Bermeoko Gazteria Saileko teknikariaren laguntzaz, gure kasu-azterketa lantzerantz abiatu ginen. Aipatzekoa da azterketa honen prozesua 2015eko otsailean hasi eta urrian bukatu zela. Hartutako informazio-iturri nagusiak 4 izan dira, 1. taulan bildu ditugunak:

**1. taula. Bermeoko kasu-azterketako informazio-iturriak.**

Informazio-iturriak	Kontakutubidea	Teknikak	Garapenaren kokapena	Intereseko datuak
Dokumentazioa	Internet, GIZeko teknikaria, aldizkariak, etab.	Dokumentuen analisia eta interpretazioa	Bermeo	<i>Lortutako dokumentuak:</i> 1. Lokal bat zabaltzeko eskaera-orria. 2. Bizikidetzagida. 3. <i>Lokaleku</i> . Amaierako txostena.
Bermeoko jendarte-hezitzailea	Urtxintxa erakundea	Elkarrizketa	Urtxintxa	
Gazteak 3 gazteen lokal: lonja bakoitzeko 2-3 gazte	GIZeko teknikariaren bitartez	Elkarrizketa (bakoitza 45 minutukoa)	Bermeo (lonja bakoitzean)	<i>Jarraitutako prozesua:</i> 1. Kontakut telefonikoa. 2. Lehenengo kontakut zuzena. 3. Elkarrizketa.  <i>Sinatutako dokumentuak:</i> – «Informatutako onespina». – «Ikerketarekiko konpromiso dokumentua».
Eragile komunitarioak: auzokideak (3), lokalen jabeak (1) eta gazteen senideak (4)	GIZeko teknikariaren bitartez	Talde komunikatiboa	Bermeo	<i>Helburua:</i> fenomenoarekiko iritzi ezberdinak biltzea.

Berezko lanketa.

Behin eragile guztiekin elkartu eta jaso beharreko informazioa eskuratuta, analisi kualitatiboa egiteari ekin genion. Analisi hori metodo induktibo-deduktibo batean oinarritu eta 2. taulan azaltzen den kategoria-sistema ondorioztatu genuen:

## 2. taula. Kategoriak eta haien definizioa.

KATEGORIAK	DEFINIZIOAK
Lonja-eremuan gauzatzen den esku-hartzearen jatorria	Esku-hartzearen filosofia eta beharrianekin erlacionatutakoak biltzen dituen kategoria.
Lonja-eremuan gauzatzen den esku-hartzearen metodologia	Esku-hartzearen planteamenduari dagokio (erabiliko diren estrategiak, ebaluazio-sistema, etab.).
Ikasketa-hazkundera	Lokalean sortzen den bizikidetzaren bitartez gazteek barneratzen dituzten konpetentziak eta lokalaren inguruarekin gertatzen diren elkarrekintzak biltzen dituen kategoria.
Parte-hartzea	Parte-hartze maila, zein testuingurutan gertatzen den, parte-hartze eredua, etab.
Lokalen ezaugarritzea	Lokala osatzen duten gazteen profila, lokalak daukan zentzua, erabilera, etab. biltzen dituen kategoria.
Hezitzailearen ezaugarritzea	Hezitzaileak duen trebakuntza, adina, esperientzia, estilo komunikatiboa, etab. biltzen ditu.
Fenomenoarekiko begiraden hautematea	Beste eragile batzuek fenomenoarekiko duten pertzepzioa zehazten duen kategoria.

Berezko lanketa.

Arestian ikusi den bezala, aztertutako kategoriak 7 izan dira, baina lan honetan ikerketaren helburuarekin erlazio nabarmenagoa duten elementuetan zentratuko gara.

## 5. Emaitzak eta eztabaida

Aزتutako kategorietatik abiatuta, ondorengo lerroetan agertzen ditugun emaitzak lortu dira:

Lokalaren ezaugarrietan zentratuz, nabarmendu dezakegu Bermeoko gazteen lokaletan **lokala izatearen joera errepikatu egiten dela**, horrela, Tejerina eta besteek (Tejerina *et al.*, 2012) esandakoa baieztatuz. Horrez gain, Laespada, Arostegi, Martínez eta Sarabiak (2008) «lokalero»-en profilean **gehienbat mutilak nabarmentzen direla** azaldu digute, eta, Bermeoko kasuan, joera hori ere errepikatu egiten da; izan ere, gazteen lokaletan mutilen kopurua handiagoa da (% 74, gutxi gorabehera<sup>8</sup>).

Lokalek duten zentzuan zentratuz, esan dezakegu, oro har, **gazteen lokal hauek lagunekin elkartzeko gunez hartzen direla**. Bermeon badago gazteei zuzendutako espazio bat, hau da, Gaztelekua, baina ez da gazteengana iristen,

8. Informazio hau Urtxintxa Eskolak eginiko *Lokaleku. Amaierako txostena* dokumentutik berreskuratu dugu.

ez dute haiei zuzendutako espazio gisa baloratzen, horregatik, gazteen elkartzeko guneak gazteen lokalak direla esan dezakegu.

(...) Es que al final tampoco hay para jóvenes así en Bermeo, tampoco hay un sitio para estar ni igual algún bar en el que... (Txoko I- Gazteak).

(...) Íbamos a fumar pero porque era un espacio que necesitamos, no para fumar, sino para nuestra intimidad (Txoko III- Gazteak).

Hori horrela, Corcuera eta besteek (Corcuera *et al.*, 2013) egindako ikerketan jasotzen diren emaitzekin bateragarritasuna dagoela esan dezakegu; izan ere, Bermeoko gazteek lagunekin egoteko gune bezala zein esparru pribatu bezala baloratzen dute beren lokala.

Kontuan hartu behar izan dugun beste alderdi bat gazteen adinarekin dago lotuta. Alde batetik, lokalaren barneko organizazioan zentratu behar dugu. Proiektu honetan parte hartu duten agenteen artean azaldu izan da **lonjetako partaide gazteenak izaten direla lokala modu desegokian erabiltzen dutenak**, baina, denbora aurrera joan ahala, joera hori desagertuz doala uste dute, lokala elkartzeko gune bat bihurtzen delarik, non ardurekiko konpromisoa nagusitzen den.

(...) Para la limpieza, te tocaba limpiar y va, no voy y pago 5 euros, dejaba el txoko como sea, solo iba uno a limpiar o dos y pues ahora con el tiempo igual te vas dando cuenta que eres más responsable a la hora de pagar al día o a la hora de tener limpio el txoko... (Txoko I- Gazteak).

(...) Yo creo que es algo relacionado con la edad, y luego con el tiempo sí que se van dando cuenta de eso (Hezitzailea).

Eta, beste alde batetik, lokalaren barnean sor daitezkeen arazoetan zentratu behar dugu. Elkarrizketatutako gazteen esanetan, **adin nagusiagoko gazteak dira barne-arazo gehien izaten dutenak**, adinak gauzekiko zein lokalarekiko ardura gehiago eskatzen duelako; baina, nahiz eta arazo kopurua handiagoa izan, horiek konpontzeko erraztasuna ere handiagoa da, heldutasuna nabarmenagoa baita adin nagusiagoko gazteengan.

(...) Por eso y porque ahora hay conflictos y antes no. (...) Porque con 15 años tu...dices «bah, no pasa nada y fuera. Si se rompe la mesa pues ya se traerá mañana otra». (...) Pero ahora dices «joder tío, no sabemos cuidar las cosas, ¿o qué?» o sea, pero porque eres más consciente de las cosas (Txoko III- Gazteak).

(...) Mira pues yo veo igual eso, lo que decía del tema de la limpieza igual. Dejabas todo... (...) Y te daba igual, lo que te decía el amigo, que eso está sucio... te daba igual todo. Ahora, pues, al final, no se... (...) Te ayuda pero a partir de una edad (Txoko I- Gazteak).

Beraz, esan dezakegu lokala hartzen duten gazteen adinak erabateko eragina duela lokala erabiltzeko moduan zein lokalaren barnean ager daitezkeen arazoetan. Hori horrela, bi ideia horiek beste ikerketa batzuetan azpimarratu den lokalaren eta adinaren arteko lotura sendotzen dutela esan dezakegu (García, Alonso eta Berasategi, 2016); izan ere, Bermeoko kasu-azterketan parte hartu duten agenteen

aldetik lotura hori ikusteko aukera izan dugu, hau da, lokal bat izatean gazteen adinak duen garrantzia ezagutzeko aukera izan dugu. Aldi berean, adinak hazkunde pertsonalaren garrantzia azpimarratzen du; izan ere, lokalaren erabilera adinarekin erlazionatzen da eta adina hazkunde pertsonalarekin erabateko lotura daukan elementua da.

Beste alde batetik, kasu-azterketaren ardatz izan diren hazkunde pertsonalean eta parte-hartzean zentratzen direnak bereiz ditzakegu.

Hazkunde pertsonalari dagokionez, esan dezakegu **lokalak garapenerako gune bezala baloratzen direla gazteen zein hezitzaileen aldetik; baina, komunitateko eragileentzat, aldiz, elkarguneak soilik dira**. Hori horrela, gazteek zein hezitzaileek lokalak garapenerako gune gisa baloratzen dituztenean, ikerketa-proiektuaren abiapuntua den gazte-hazkundera pisua hartuz doala esan dezakegu, nahiz eta lan handia geratu aurretik, lokalen inguruko pertzepzioa aldatuz baitoa.

(...) No tengo mucha confianza en el trabajo educativo porque al ser gente joven es fácil el exceso (Agente komunitarioak).

(...) Al final es algo nuestro, como más responsabilidad. Mas no se...que te importa más estar a gusto en el txoko, hacer las cosas bien (Txoko I- Gazteak).

(...) Pues están aprendiendo un montón de cosas que pueden llevar también o que pueden trasladar al pueblo (Hezitzailea).

Lokalaren barneko zein kanpoko parte-hartzean zentratzerakoan, esan dezakegu horren beharra egon daitekeela; izan ere, **elkarrizketatu ditugun agenteen artean ez da parte-hartze hori islatu**, eta horrek aktibazio eta inplikazio falta dagoela esatera garamatza (baina ez soilik gazteen aldetik, baita komunitateko gainontzeko eragileen aldetik ere).

(...) Pues no hacemos actividades entre txokos o quedadas y cosas...no, cada uno con su txoko y... (Txoko I- Gazteak).

(...) Realizar un trabajo comunitario. Que los jóvenes participen más en la comunidad, no se les ve (Agente komunitarioak).

Azkenik, garrantzitsua iruditu zaigu hezitzailearen funtzioaren garrantziaz jabetzea. Aurretik azaldu dugun legez, Bermeoko Udalak hezitzaile bat du bere langile taldean, eta haren funtzioak pixkana-pixkanaka areagotuz doaz. Hori horrela, prozesu honetan parte hartu duten eragileen aldetik, **figura horren presentzia garrantzizkotzat hartzen dutela** ondorioztatzen dugu, **hau da, hezitzaile bat izatearen beharra antzeman izan dutela**.

(...) Yo creo que es súper necesario, pero...pero eso que cuesta, esa labor cuesta y justo... (...) también moverte en un contexto que no conoces, no conoces el funcionamiento de la chavalería...o sea, saber cuáles son sus necesidades, o cómo andan pues es difícil, pero yo creo que si hace falta una labor educativa o sea un papel de educador o educadora (Txoko III- Gazteak).

(Vale. Y, ¿Creéis que igual el que venga una persona, una figura educativa os podría ayudar a mediar igual los problemas con los vecinos, con...?) No creo...no. Bueno, depende de cada uno. (...) Yo creo que si...le pueden hacer caso más a otra persona que a nosotros. (...) No va a estar todos los días aquí para ver cómo nos comportamos. Eso depende de nosotros. (...) A ver te quiero decir que podemos llegar a un acuerdo mucho más rápido habiendo otra persona entre mitad, o sea, en la mitad que entre nosotros y un vecino... Para mi opinión eh. (Y, ¿Porque crees eso?) Porque el, o sea, le puede decir la persona esa...le puede decir, pues eh, yo que sé, que ha hablado con nosotros y que podemos llegar a un acuerdo, ¿sabes? Y yo creo que le harían más caso pues a él (Txoko II- Gazteak).

## 6. Ondorioak

Emitza guztiak kontuan izanda, ohartu gara lonjen fenomenoaren egonkortu edota gora doan fenomenoaren dela; izan ere, 90eko hamarkadatik gaur egunera hazkunde nabarmena izan du, eta horrekin batera, sozializazio-bide berriak agertu dira (horien artean, lokalen bidez lortzen den sozializazioa). Beraz, esan dezakegu lonjen fenomenoaren pisua nabarmena hartzen ari dela gazteen gizarteratzeari buruz hitz egiten dugunean.

Ondorioei buruz hitz egiterakoan, ezinezkoa da beste ikerketa batzuetako emaitzekin izandako parekotasunari ez erreparatzea. Bermeoko kasu-azterketa honen bitartez, ohartu gara lokal bat izatearen joera errepikatu egiten dela, lokala izatearen grina espazio propio bat izatearen beharretik abiatzen delarik. Baina, nahiz eta antzekotasunak agertu beste ikerketa batzuetako emaitzekin, Bermeoko kasu-azterketan ildo garrantzitsu bat azpimarratu nahi izan dugu, hau da, hezitzailearen papera.

Bermeoko udalerriko azterketan inplikaturik eskutik ikusi izan dugu hezitzailearen funtzioa positiboki baloratzen dela, horren garrantziaz edota beharrez ohartu izan direla. Hori dela-eta, fenomeno honek hartzen duen tamaina eta garrantzia kontuan izanik, ildo horretan lan egiten jarraitzea bidezko ikusi da.

Hori horrela, beste figura batzuek gain, lonjen fenomenoaren aurrean hezitzailearen funtzioak presente egon behar duela esatera ausartzen gara; izan ere, profesional horrek dituen gaitasun eta konpetentziak kontuan izanda, haren zereginak lonjetan baliotsuak eta beharrezkoak izan daitezkeela uste dugu.

Ildo horretatik jarraituz, hezitzaileen trebakuntza handitzearen garrantziaz aritu nahi dugu. Esan bezala, ugariak dira figura profesional horren gaitasun eta konpetentziak, baina, lokalen fenomenoaren, etengabeko eraldaketak jasaten dituen fenomenoaren da, hau da, etorkizunak bere baitan dakartzan ezaugarrietara moldatuz doa, aldi berean, hezitzailearen trebakuntzak ere egoera horretara moldatuz joan behar duelarik. Beraz, uste dugu ezinbestekoa dela etengabeko trebakuntzaren garrantziaz jabetzea; izan ere, eraldaketa-prozesu hauek ezaugarri berriak agerraraziko dituzte, eta, horrek, bere baitan, profesionalen eskutik azaldu behar izango diren konpetentzia zein gaitasun berriak eskuratzea ekarriko du.

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat parte-hartzea bultzatzearen garrantzian oinarritzen da. Bermeoko udalerrian ikusi izan dugun legez, lokaletako gazteen eta komunitateko gainontzeko agenteen artean dagoen parte-hartzea eskasa izan da. Hori dela-eta, garrantzitsu deritzogu herri/auzo mailan eragile sozial horien arteko elkarlana bultzatzen jarraitzeari, gazteen lokalei beste etekin bat ateratzeari, horretarako, agenteen arteko lanaldiak, topaketak eta abar proposatuz. Ildo horretatik abiatuta, azken urteetan hainbat herritan arrakastatsuak suertatu diren ekimenak nabarmendu dira, besteak beste: «lokalero»<sup>9</sup>, «txamilari»<sup>10</sup> eta «lonjero»<sup>11</sup> egunak.

Ondorio orokor gisa, gazte-politiken garrantziaz ohartu behar dugu. Argi dago gazteen lokaletan parte hartzeak gazteen sozializazioan zein beste hainbat arlotan eragina duela, gero eta eragin nabarmenagoa. Administrazio publikoa, maila ezberdinetan horren irakurketa eginda, gazte-politika eredu berri bat eta horrekin bat datozen hainbat ekimen martxan jartzen ari da, adibidez: Europa mailan sustatzen den «Erasmus +» programa (European Union, 2015), edo gure testuinguruan aurki ditzakegun «Gazteukera»<sup>12</sup> eta «Gaztedi Bizkaia 2020» (Bizkaiko Foru Aldundia, 2017) proposamenak.

Oraindik ere lan handia daukagu egiteke; izan ere, lokalen inguruan aurki daitekeen informazioa eskasa da, eskasagoak izanik eremu honetan hezitzaileek erabil ditzaketen tresnak. Beraz, kontuan izanda gazteen elkartzeko gune printzipalak gaur egun gazteen lokalak direla, garrantzizko deritzogu administrazioetik hasi beharreko erantzun bat bultzatzeari, zeinak eskaintza koordinatua eta zentzuduna ekarri beharko duen. Udalerrri batzuk, Bermeo barne, bide horretan hasiak dira.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

- Agirre, N. (2007): «Gizarte hezitzailea lanbidez: korapiloak askatu nahian», *Revista de Psicodidáctica*, **12**, 79-105, <<http://www.redalyc.org/pdf/175/17512105.pdf>>-tik berreskuratuta.
- ASEDES (2007): *Documentos profesionalizadores*, Asociación Estatal de Educació Social, Bartzelona.
- Berger, P.L. (1998): *Soziologiarako gonbitea. Ikusmolde humanistiko bat*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Leioa, Bizkaia.
- Bermeoko Udala (d.g.): *Kultura, Gazteria eta Hezkuntza Saila*, Kultura, Gazteria eta Hezkuntza Saila, Bermeo.
- Berria (2010): «Gazte batzuen lonjak su hartu du Gasteizen», *Berria*, 2010eko martxoaren 24a, <[http://www.berria.eus/albisteak/40046/gazte\\_batzuen\\_lonjak\\_su\\_hartu\\_du\\_gasteizen.htm](http://www.berria.eus/albisteak/40046/gazte_batzuen_lonjak_su_hartu_du_gasteizen.htm)>-tik berreskuratuta.
- Bizkaiko Foru Aldundia (2017): «*Gaztedi Bizkaia 2020*» *Legegintzaldiko Programa*, Bizkaiko Foru Aldundia; Bilbo.
- Calderón, N. (d.g.): *La socialización como elemento fundamental en la vida*, <<http://www.psicopedagogia.com/socializacion#>>-tik berreskuratua.

9. [http://www.santurtzi.net/eu-ES/Gertakariak/Orrialdeak/20141222\\_LokaleroEguna2014.aspx](http://www.santurtzi.net/eu-ES/Gertakariak/Orrialdeak/20141222_LokaleroEguna2014.aspx)

10. <http://www.galdakao.eus/gehiago/galdakaoko-gazteen-lonjek-txamilari-eguna-2017-ospatuko-dute-ekainaren-30ean-eta-uztailaren-1ean/1000316/18501>

11. <http://www.argia.eus/blogak/kimetz-arana/2014/06/13/lonjero-eguna/>

12. <http://www.gazteukera.euskadi.eus/r58-2279/eu/>

- Corcuera, N.; Bilbao, M. eta Longo, O. (2013): *Joerak 7 tendencias. Gazteen lonjak eta lokalak EAEn*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Donostia.
- Doistua, J.; Pose, H.M. eta Ahedo, R. (2016): «Espacios, experiencias de ocio y participación de la juventud: contribución a los modelos de gestión e intervención a partir del análisis de buenas prácticas», *Contextos educativos*, **19**, 133-145.
- EFE (2013): «Detienen a cuatro jóvenes en una operación antidroga en una lonja de Santutxu», *Elcorreo.com*, 2013ko maiatzaren 28a, <<http://www.elcorreo.com/vizcaya/20130528/local/detienen-cuatro-jovenes-operacion-201305281355.html>>-tik berreskuratuta.
- (2015): «Detenido en Mungia por traficar con drogas en una lonja de de menores», *El Mundo*, 2015eko otsailaren 22a, <<http://www.elmundo.es/pais-vasco/2015/02/22/54ea061ee2704e50718b457b.html>>-tik berreskuratuta.
- European Union (2015): *Empowering young people to participate in society. European good practice projects*, Publications Office of the European Union, Luxenburgo.
- Furlong, A. eta Cartmel, F. (2007): *Young people and social change*, Mc.Graw Hill, New York.
- García, M.; Alonso, I. eta Berasategi, N. (2016): «Posible al da lonja eremuan eskuartze sozioheizitzaile bat aurrera eramatea? Trapagarango kasuaren azterketa», *Zerbitzuan*, **61**, 91-101.
- Goode, W.J. (1983): *Principios de sociología*, Trillas, Mexiko.
- González López, F. (2013): *Jóvenes y participación. Estudio sobre participación juvenil*, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Gasteiz.
- Laespada, M.T.; Arostegi, E.; Martínez, I. eta Sarabia, I. (2008): *Las lonjas: ¿una participación ciudadana efectiva? La experiencia de Portugalete*, Universidad de Deusto – Instituto Desuto de Drogodependencias, Bilbo.
- Lazkano, I.; Madariaga, A.; Rubio, I. eta Pinillos, J. (2013): *Gazte Izaera: Uso y gestión de espacios para la juventud en los municipios de Bizkaia*.
- Losada, L.; Muñoz, J.M. eta Espiñeira, E.M. (2015): «Perfil, funciones y competencias del educador social a debate: análisis de la trayectoria de la formación de profesionales de la educación social», *Educació Social. Revista d'Intervenció Socioeducativa*, **60**, 59-76, <<http://www.raco.cat/index.php/EducacioSocial/issue/view/22599/showToc>>-tik berreskuratuta
- Martínez, Z. (2003): *Aldaketa soziala eta praxi kolektiboa. Gizartearen produkzioa pentsamendu soziologikoan*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Tejerina, B.; Carbajo, D. eta Martínez, M. (2012): *El fenómeno de las lonjas juveniles. Nuevos espacios de ocio y socialidad en Vitoria-Gasteiz*, Universidad del País Vasco, Departamento de Sociología, Bilbo.

